



Poxta Zahar, hogei urtez Urnietan eragiten

Larunbat honetan, Urnietako gazte kuadrillen elkartearen urteurrena ospatuko dute, goizean hasi eta gauera arte luzatuko den egitarauarekin / 2-5

Euskaldunaren ekitaldiak

Erakusteka Basteron, eskulturaren irekiera Ubitarten eta herri-bazkaria Ikastolan / 13

Euskaldunan eta Santakruzetan eragile petoa izan zen Jesus Langara, XX. mendean / 8-9

Urki dantza taldeak udaberriko emanaldia eskainiko du Bastero Kulturgunean, igande eguerdian / 14

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTBARRIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAINZA
ZORROTZENA**

+2.000 bezerok gogon dute konfiantza

943 903 450
bertoko.eus





2022ko Sanmieletan jendetza elkartu zen Idiazabal kalean, kuadrillen egunean. POXTAZAHAR

Bi hamarkada akuilu lanetan

Larunbat honetan, hogeitun urte beteko ditu Poxta Zaharrek. Aitor Valverde, Izaskun Labat eta Maddi Ibañez: hiru belaunaldiren bizipenak jaso ditu Aiurrik, ibilbideari errebasoa egiteko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Bi hamarkada bete ditu aurtun Urnieta Poxta Zahar gazte kuadrillen elkarteak. 2003. urtera egin behar da atzera salto, irakurle, ezjakintasunez bezain ilusioz, beren herriaren alde, ekintzak antolatze gogoz zegoen gazte-taldearekin topo egiteko. Bestelako irakurketa egiten lagundu die urnietar askori borondate lanetik eta herrigintzatik sortutako elkarteak, eta Urnietako kale-kantoi guztietaraino iritsi da bere jarduna, egun, erreferentziako talde-eragile bihurtzeraino.

Paperezko orrialde hauen lau ertzetan hogeitun urte laburbiltzea zaila izanagatik, elkartearen hiru belaunaldi uztartu ditu Aiurrik, hiru begirada nahiz lekukotza. Oroitzapen-ariketa eginez, nor bere doinu eta neurrian, bizipen-bilduma ondu

dute Aitor Valverde Jauregi (1985), Izaskun Labat Marco (1991) eta Maddi Ibañez Etxeberrria (2000) urnietarrek. Honatx, jarraian, bi hamarkadaren errebasoa, hitzez eta irudiz.

Lehen pausuak

Mende berriaren hasieran jaio zen elkarte. Garai hartan, 17 urteren bueltan zebiltzan Aitor Valverde Jauregi eta haren lagunak. Politikoki, "garai konplexua" gogoratzen du urnietarrek sasoi hura, "hainbat gatazka zirelako tartean". Bien bitartean, Urnietan, "ez zegoen ezer",

"MASA HANDI BAT HERRIAREN ALDE MUGITZEN HASTEAN LORTU GENUEN"

AITOR VALVERDE

eta bertako gazteek beren aisialdia inguruko herrietan asetzeko joera zeukaten. Hutsunea sumatzen zuten horretan Valverde eta ingurukoek. Horrela, zerbait egin behar zutela ikusi zuten: "Betidanik pentsatu izan dut Urnieta herri berezia dela. Hortaz, gauzak ere beste modu batean egin behar genituela iruditzen zitzaigun, nire ustez, inguruko herrietan zeuden dinamikek gurean ez zutelako hain ondo funtzionatzen". Hala, oinarritzko balio batzuei eutsita, jakina, izaera propioa eman nahi izan zioten hastear ziren bideari: "Horixe izan zen arrakastaren gakoa. Masa handi bat herriaren alde mugitzen hastea lortu genuen. Denborarekin, urnietar gazte asko murgildu zen".

2003ko udan, Lekaion bilera bat egiteko deialdia zabaldu zuten, pertsonala bezain kolek-

tiba zen ezinegon bati erantzun nahian. Nola? Ahoz aho, atez atez herriko gazte-lokal guztietara gerturatuz... "Kultur etxe bilera-gela jendez bete zen!", du gogoan Valverde, hunkituta. Hori horrela, ondo baino hobeto oroitzen du jakin-minez betetako urnietar gazteen arteko lehen bilgune hura: "Urnietak zerbait behar zuen eta, hitzordu horretan, argi ikusi zen horri erantzuna emateko prest zegoela jendea". Gauzak horrela, pixkanaka, bidea osatzen nahiz talde-izaera egonkortzen joan zen, ondoren, elkarte bihurtu zena. Taldeari ezinbesteko osagaia falta zitzaion, ordea: izena. "Lekaion bildu ginen, Urnietako Udalarekin, bilera egiteko", azaldu du Valverde, "bada, une horretan bertan, Poxta baserria eraisten ari zirela ikusi genuen bulegoko leihotik, eta hortik dator Poxta Zahar".

Erreferentzialtasuna

Inprobisazioa zuten oinarri, herrigintzaren ikuspegitik, Urnietako testuinguruan, ez zegoelako, kasik, eskarmenturik. Beraz, "itsu-itsuan" ekin zioten gauzak antolatzeari herrian. "Jaiak bai, Urnietan ere bai". Horixe izan zen pankartetan

"TALDEAREN PARTE SENTITZEAK HERRIAN SUSTRAITZEN LAGUNDU ZIGUN"

IZASKUN LABAT

zintzilikatutako lehen leloa, herriko aisialdiari, festa-giroari bestelako irakurketa bat emateko beharra identifikatu zutelako. Hari horri tiraka, egiari zor, lehen txosnaren muntaketa nahiko anekdotikoa dela aitortu du Valverde: "Gure lehen txosna Ibarako garaje batetik ateratu genuen. Zaharkitutako lau txapak, herriz herri, gutako baten aitaren kamioi zaharrean ekarri genituen". Asketako txosnaren ondoan jarri zuen Poxta Zaharrek, estreinako, berea: "Guggenheim deitzen genion! Oso arriskutsua zen, baina, nolabait, muntatzen asmatu genuen". Ezusteko desatseginek gertatu ez zen arren, urnietarrek umorez dio, badaezpada, hurrengo urtean, azpiegitura beste garaje batetik hartzea erabaki zutela.

Guztia ez zen dantza eta paranda, ostera. Jai-girotik harago jotzeko borondatea ere bazegoen gazteen artean, eta, ostiralero-ostiralero, herriko bolatokiko estalpean kozinatzen zituzten buruan zebiltzuten ideia (zoroak, batzuk) guztiak. Eskirteak, bertso-saioak, hitzaldiak... Iluntze horietako batean sortu zen, besteak beste, irratsoa egiteko proposamena. Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzako estudioan biltzen ziren Valverderen esanetan: "Zerbait prestatzen ahalegintzen ginen, eta, bestela, gustuko musika ipintzen genuen".

Denboraren joanarekin, pixkanaka, Poxta Zaharreko eki-



menak forma hartzen eta ohi-tura bihurtzen hasi ziren, erreferente bihurtu baitzen Urnietan, Valverderen iritziz. Haur, gazte eta heldu, Poxta Zaharreko kamisetak jantzita ateratzen ziren kalera: "Urnietan, saltsa nabaritzen, eta horixe izan zen gure garaipenik onena, herria piztea".

Kimu berriak

Hogei urteko bidean, izan da lekuko aldaketarik, eta, horrela jarraitu du mugimenduak aurrera, jada, bertako kide diren esperientzia jende berriaren freskotasunarekin uztartuta. Lehenengo belaunaldiari jarraipena eman zion Izaskun Labat Marcok beste batzuekin batera, eta, gaur egun, oraindik, taldean dirau Maddi Ibañez Etxeberriak. Garai ezberdinetan izan arren, biak ala biak aitortu dute modu progresiboan sartu zirela taldean, alegia, bileretara joan ahala, dinamikak eta eginbeharrak ezagutzen joan ziren, baita erantzukizuna hartzen ere.

Hasieran, eskarmentua zutenek zeramaten batuta, eta, Labaten bizipenez, "izugarri" lagundu zieten ardura-transmisioan, ahalgin handia egin baitzuten beterranoek, lekukoa modu ez borbortz batean emateko: "Lan-taldeen ginen banatuta eta guztietan zegoen, gutxienez, beterrano bat, gainerakooi erakusten. Denboraren joanarekin, oso modu naturalean utzi zuten, eta orduan hartu genuen guk benetan lekukoa, baina, jada eskarmentu pixka batekin". Ildo beretik, zortzi bat lagunekin batera sartu zen Ibañez Poxta Zaharren: "Oso motibaturik geunden, mugimenduaren parte izan nahi baikenuen". Herrian gauzak antolatzeikoklusioarekin, hortaz, bileretara joaten hasi ziren. "Jende mordoxka" zegoela dio elkarteko kideak. "Ideia, motibazio eta helburu oso antzekoak zituen kideekin biltzeko aukera" bermatu dio espazioak, berezkoa ez zitzaien harreman-sare berrietara irekitzeko aukera edukitzeaz gain. Ideia horrekin erabat ados da Labat, izan ere, beren aisialdia herrian asetzeko gogoak eta

"ONURAGARRIA DA NAHASKETA, ELKARRENGANDIK IKAS DEZATEN"

MADDI IBAÑEZ

premiak erantzuten dituen espazioa izan da beti Poxta Zahar. Modu batera edo bestera esanda, "ateak ireki" zizkion Labaten adinaren bueltako belaunaldiari, herrian sarea osatzeko: "Horren parte sentitzeak herrian sustraitzen lagundu zigun. Unibertsitate garaian, kanpoan ikasten nuen eta oso polita zen ostiraletan etxera itzuli eta guztiak elkar-tzea".

Jai Batzordearen aurreko garaiak

Hainbatetan aldatu du formaz eta itxuraz taldeak, unean-unean, tokian tokian suertatutako egoerei erantzuteko. "Taldeen bertan daudenek osatzen dute Poxta Zahar", dio Labatek, mugimendua momentuko behar eta baliabideetara egokitzen dela azaltzeko. Ideia horri tiraka, hama sei bat urterekin sartu ziren Ibañez eta lagunak taldean, eta, denboraren joanarekin, kidekopuruari erreparatuta, oso aldakorra izan dela dio: "Lehen, adibidez, ez ginen kabitzen Informazio-puntuan egindako bileretan. Orain, bestelakoa da egoera". Labatek azaldu lez, ezinegonak eta aldarriak ere, joan-etorrian izan dira, mugimenduak zeukan indarraren arabera: "Bai gure aurrekoek, bai guk ezinbestekotzat genuen Gaztetxea, eta, gure lan-ildoan, lehentasuna zuen gaiak, espazio bat, gure artean bildu ahal izateko".

Bolatokian hasi zituzten bilerrak, Informazio-puntuan gero, Udalarekin harremana formalizatzearen ondorio. Sorrerako urtera atzera-salto eginez gero, Valverdek adierazi du herrian ez zegoela parte-hartze kultura handirik, ez eta Udalean bertan ere: "Pentsa, atzera begirako urteetan, ez zegoen jai-batzordek ere. Udalarekin harreman nahiko ona izan genuela uste dut, nola edo hala, guk ere asmatu genuelako beraiekin nola harremandu". Horrela, Labatek uste du, "beste eragile batzuk martxan jartzeko amua" ipini zuela Poxta Zaharrekin. Gaur egun, abaniko zabal bati begirako taldeak daude herrian, eta jai-batzordeen bidez izaten dute eragileek Urnietako hitzordu askoren berri. Egun, gainerakoekin harremana ona dutelakoan da Ibañez, eta Udalagatik galdetuta, batzuetan, adostasun batera iristea "kosta" egiten dela uste

du, "egon behar ez luketen" oztopoekin egin baitute topo tarteka.

Gazi-gozotasunak

Guztien gozamenerako ekimenak sortzeak, tarteka, buruhausteak ere ekartzen ditu. baita aurretiazko antolaketa-lanak ere. Horregatik, Ibañezek azaldu bezala, "espazio irekia da Poxta Zahar, nahi duenak gustuko gauzak partekatu ditzan, egindako ekintzen harira iritzia eman dezan baita ideia berriak proposatzeko ere, jakinda, noski, ezin direla guztien gustukoak diren hitzorduak antolatu, eta dena ez dela kanpotik dirudien bezain erraza". Jendeari begi-

rako plaza irekia izateko borondatea du Poxta Zaharrekin, eta, Valderdek dionagatik, oinarri hori bera ere bazegoen hastapenean: "Zerbait antolatu orduko, segituan zabaltzen genuen deialdia, beti izan baititugu atek zabalik". Irekitasun horrek, makina bat iritzi eta ideia elkar gurutzatzen diren espazio bihurtu du elkartea bi hamarkadaz, eta hori indargunetzat du Labatek: "Ikuspuntu ezberdineko jendearen artean adostasunera ailegatzeko gaitasuna trebatzeko aukera izan nuen. Talde-lana zen oinarria, eta komunean genituen balioetan zentratzen ginen". Ariketa horretan, adin ezberdineko jendea elkartzeari

ere garrantzia ematen dio Ibañezek, "nahasketa onuragarria da, helduek gazteen eskutik ikas dezaten eta alderantziz".

Guztia ez da gozo eta samurra, ordea, eta, tarteka, bidean, zenbait bihurtzeri aurre egin behar izan die elkarteak, baita gaur egun ere, kanpoko zein barneko faktoreek baldintzatuta, Ibañezen esanetan: "Ahal den neurrian", guztiei begirako hitzorduak prestatzen ditu Poxta Zaharrekin, "baina, jendeari ez diogu erantzun aktibo bat sumatzen, edo ez dugu herri mugimendua sustatzeko horrenbesteko motibazioerik ikusten". Eta, hain justu ere, gogoan eta ilusioan ikusten du elkartekideak gakoak: "Ez baldin—>

—>badaukazu sinetsita elkar-teari eta herriari egin diezaio-kezun onura, motibazioak ez du luzaroan iraungo". Taldekidea-ren esanetan, horixe du Poxta Zaharrek etorkizuneko erronka nagusi: "Herri mugimendua nahiz herri sentimendua sustatzea eta herritarrei erakustea beraiek ere horren parte izan daitezkeela". Aukera ederra, beraz, apirilaren 22an izango den urteurrena berriro ere indarrak batu eta mugimenduari bultzada emateko.

Egin Poxta Zaharrekin topa!

Urnietar askorentzat zein baino zein bereziagoa izango da datorren larunbata, Poxta Zaharrek hogeitau urte betetzen dituelako. Hala, azken asteetan, bilera irekien bidez, eguna antolatzeke gogoia duten zenbait herritar bildu dira, "gazteak eta baita ez horren gazteak ere". Tartean da Valverde; ilusio handiarekin dabil azken boladan, "inflexio-puntu garrantzitsua" izan baitzen, bere garaian, Poxta Zahar bere belaunaldiarentzat. Harekin bat dator Ibañez ere, urteurrena antolatzeke ostiraleko bilerek beste adin-tarte batzuegana gerturatzeke aukera eman baitio. Herri-kirolak, poteoa, herribazkaria, manifestazioa eta kontzertuak... Aspertzeko tarterik ez da izango larunbatean Urnietan, eta aukera ederra izango dute herritarrek horrenbeste eskutatik igaro den proiektu-



Poxta Zahar taldeko kideak 2013ko Sanmieletan, Mielarekin batera. AIURRI

tuari merezi duen omenaldia egiteko.

Hiru urte besterik zituen Ibañezek Poxta Zahar sortu zenean. Hogeita hiru betetzear da orain. "Denboran horrenbeste iraun izanak zer pentsatua ematen du. Motibazioa pizten digu, Urnietari asko eman diolako Poxta Zaharrek". Ikusle huts izatetik herrian parte-hartzaile aktibo izateke aukera bermatu zion elkarteak Labati: "Batuetan,

iruditzen zait jendea ez dela hortaz jabetzen. Askok uste duena baino garrantzitsuagoa izan da Poxta Zahar. Ez dadila falta inoiz bere esentzia. Nork beretik emanda sendotzen da taldea. Gerturatzen denak ez dauka ezer galtzeko!". Iraganera begira ipintzeko aukera emateaz gain, etorkizunari erreparatzeko aukera eman dio Ibañezi hogeigarren urteurrenak: "Guztiek daukagu zerbait emateko, ani-

matu dadila jendea gurera, lotsak galtzera eta ideia freskoak ematera!". Era berean, orain bi hamarkada zeukan ilusio berberarekin ikusten zaio Valverderi, eta nabari da beregan bide berriei ekiteke gogoia: "Urteurrenak lagun diezaiola mugimenduari bultzada ematen, eta biltzen jarrai dezagun gazteek eta baita ez hain gazteek ere!".

Adarra magalean, berriro ere zarata entzuten da...

Bertsoak, hamar urteren omenez

2013ko Sanmieletan, Poxta Zaharrek irakurri zuen pregoia, sorreratik hamar urte igarota. Elkartearen ibilbidea laburbiltzen zuen bertso-sorta ederra abestu zuten, "Martxa baten lehen notak" doinua oinarri. Honako hauexek bertsoak:

Bi mila eta hirun izan zen Poxta Zaharren hasiera, herriak zuen hutsune argia tapatzeko sortu zena. Gazte kuadrilla bat bildu ginen aurrera egiteko batera, eta gazteok gazteontzako ekintzak antolatzena. Bolatokia zen bilgunea eta hizkuntza euskera, ideia, ilusio ta gogo denei eginez harrera. Jai xumeak izanagatik atera ginen kalera eta lehenengo txupinazoakin jai eredia berritza.

Hurrengo urtean atera genuen Lehenengo aldiz kamixeta, kolorez gorri nahi izan genuen indarrez gentozen-eta. Jendea pixkanaka hasi zen Poxta Zaharri jartzen arreta, eta urteak pasatu heinean ikusi zen aldaketa, Festak herrian bizitzeko lortu nahi genuen oreka, gazteok gure artean ere erlazionatzeko beta. Urtez urte, festarik festa lan ta buruhaustez gainezka, baina gazteak pozik ikusita arintzen zitzaigun kezka.

Mielak esaten dun bezela Urnietan festak badira, gaur egun poza ematen baitu sortzen duten ikusmira. Herri bazkari, bertso afari ginkana edo kalejira, tritikipoteo, kontzertu eta herri kirolen harira. Lehen harria jarri zenetik Iraultza bat eraiki da. Poxta Zaharreko gazte guztiok hori genuen desira. Gazte festa, inauteriei ta Samielei begira, talde lanean atera diogu herriak duen dizdira.

"Urnietan ere, festak badira!"

Mielaren kantuak arrastoa utzi du Poxta Zaharren ibilbidean. 2010. urtean sortu zen protagonista eta, urtebete beranduago, hari buruzko kantua eta bideoak. Haur, gazte eta heldu asko murgildu zen irudien gaineko grabaketa-egunean. Urtean joan, urteak etorri, oraindik ere lelo izaten jarraitzen du urnietarrentzat, festetan, batez ere.

Irailak hogeita beatzi ospatzeko eguna. Kezkak etxean utzi, ta irten zaituz plazara!! Lepoan zapia jantzi herria kalera irten da. Oihu, algarra ta irrintzi hemen dator MIELA!!

Altxa ezazu kopa, egin dezagun topa, egin Poxta Zaharrekin topa!!

Ei zar ta gazte, begira! Urnietan ere, festak badira! Miela bizkar gainera altxa, Samieletan festa ta dantza!

Testigua hartzeko prest gatz indarrarekin txikienok seittuko deu Urnietako jaiekin Pausoz pauso, eskuz esku kolore guztiokin, bidea egingo dugu etor zaituz gurekin!!

Altxa ezazu kopa, egin dezagun topa, egin Poxta Zaharrekin topa!!

Ei zar ta gazte, begira! Urnietan ere, festak badira! Miela bizkar gainera altxa, Samieletan festa ta dantza!

Aspalditik bultzatuz jai aske ta anitza, elkartu ta antolatuz sortzen da ekintza. Parte hartzean dago festaren baldintza, zure esku daukazu jaigiroaren giltza!

Adarra magalean zarata entzuten da. Mila bazterretara iristen da eztanda Azkeneko egunean bildu indar apurra. Ta hurrengo urterarte Mielari agurra!

Altxa ezazu kopa, egin dezagun topa, egin Poxta Zaharrekin topa!!

Ei zar ta gazte, begira! Urnietan ere, festak badira!

Miela bizkar gainera altxa, Samieletan festa ta dantza!

Poxta Zaharren ibilbidea, irudi bidez



2012ko Sanmieletan, Sansonarri (gorriz) eta Poxta Zahar (berdea) lehiatu ziren Idiazabal kalean. AIURRI

Goiko argazkiko desafioak zeresan handia eman ohi zuen, Urnietan. 2012an, irailaren hasieran, erronka bota zion Sansonarri Poxta Zaharri. Idiazabal kalean lehiatu ziren, eta Sansonarri izan zen garaile. Ondorioz, hitzartukoari jarraituta, gazteek afaria prestatu zieten irabazleei.

Sanmielen atariko bertso-afaria, urte amaierako San Silbestre lasterketa, hitzaldiak, kontzertuak, mendi-irteerak... Ekitaldi ugari antolatu ditu elkarteak hogei urteotan. Garrantzi handiko eragilea da, Urnietako gizarte-bizitzan.



Korrika 2015ean, Urnietatik igaro aurretik. AIURRI



Herri-bazkariak indar handia dauka Gazte Festetan. Argazkia 2010ekoa da. AIURRI



Elektro-txaranga ezinbesteko osagai bilakatu da gazteen ekitaldietan. Mikaela-Enean, 2014an. POXTA ZAHAR



Poxta Zaharreko kideak, 2009ko Sanmieletan. AIURRI

UDABERRIKO

BERTSO SAIOA

TRADIZIOARI TRAIZIO

APIRILAK 29 20:00

LASARTE-ORTANO
Manuel Lekuona kultur etxean

Sarrerak: 6 euro | 10 sarrerako bonoa 48 euro Salgai: Lasarte-Ortano Manuel Lekuona kultur etxean eta Kutxabank-en

Ane Labaka | Onintza Enbeita | Andoni Eganā

Parte hartuko dute: Uxue Odriozola, Javi Herros, Araitx Ramos, Bertso eskolako gazteak, Ibai Morales...

Gai jartzailea:
Beatriz Egizabal



Astearte arratsaldean egin zuten aurkezpen ekitaldia. AIURRI

EH Bildu hautagaitzaren aurkezpena

Euken Garmendia alkategaiak datorren maiatzaren 28rako hautes-zerrenda aurkeztu zuen. Marian Lasarte, Xabi Olanar, Nagore Brel eta Ramon Urdangarin ageri dira lehen postuetan. Herri-programan murgilduta daude, egun hauetan

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

"Jendea entzutera gatoz, jendearekin lan egitera", asmo hori nabarmendu zen astearte arratsaldeko aurkezpenean. Idiazabal kalean, alderdiak duen egoitzan, jendaurreko aurkezpena egin zuen EH Bilduk. Herri-programaren lanketan murgilduta, proposamenei zabalik daudela adierazi zuten. Maiatzaren 28ko

Udal hauteskondeei begira, EH Bilduko alkategaia Euken Garmendia izango da. Hori jakina zen, eta berritasuna bere alboan dauden kideen aldetik iritsi da. Goitik beherako aldaketa egin du EH Bilduk, eta hautes-zerrenda erabat berria izango da. Marian Lasarte izango da hautes-zerrendan bigarrena, eta, haren atzetik datoz Xabi Olanar, Na-

gore Brel eta Ramon Urdangarin. Bost horiexek egon ziren agerraldian, lehen lerroan. Eta haiekin batera aurkeztu dira, hurrenez hurren, Arantza Fernandez, Xabi Yurramendi, Aintzane Ostolaza, Ander Goikoetxea, Amets Orbegozo, Gorka Iturbe, Ixone Bereziartua, Mikel Legarreta, Irati Zinkunegi, Jokin Lizeaga eta Hanitze Jover.

Udaberriko Emakumeen Jabekuntza eskola

Tailer feminista, "Sendabelarre dakitena" hitzaldia, zineforuma, autodefentsa feminista tailerra... Jabekuntza Eskolako ekintzetan parte hartu nahi duten emakumeek oraindik badute izena emateko aukera. Goizez, Bertan bulegoan eta, arratsaldez, Gazte Informazio Puntuari eman daiteke izena. Eta baita urnieta.eus webgunearen bidez ere.



Urnieta
udala

POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO NESKA* GAZTEAK BETERRI-BURUNTZA

Neska* Gazteok Baterajotzera!

Neska* gazteok sistema hau iraultzeko antolatuta gaudela ozen esatera gatoz. Azken urteotan, krisi anizkoitzaren erpinateko bakoitza zorroztu da eta bizitza eta kapitalaren arteko talka bortizki areagotu. Murrizketen, bizitzaren garestitzearen, eraso sexista, arrazista, klasista eta transmaribollo-foboen nahiz bizitza duin bat izateko oinarrikoenak diren baliabideen faltaren lekuko gara. Sistemaren oldarraldi berri bat da hau eta distopia baten aurrean kokatzen gaitu.

Oldarraldi honetan, zaintza lanen pribatizazio eta merkantilizazioan sakondu dute, esku-bidea izatetik urrun, pobrezia eta betebeharrak gisa inposatzen digutelarik sistematikoki, enpresek, erakunde publikoek eta gizonek. Modu disparekoan, doakoan edo prekarizatuan behartuta egiten ditugu; finean, esplotatuta. Horregatik diogu, zaintza lanen esparrua, esplotazio eremu sexualizatu eta arrazializatu dela. Esplotazio egoeran inposatzen diren zaintza-lanei planto egingo diegu.

Zaintza lanen pribatizazio eta merkantilizazioa ezinbesteko zaizkie botere kapitalista, patriarkal eta kolonialei, biziraun dezaten. Izan ere, gure gorputzen esplotazioari esker, produzitu eta erreproduzitzen da sistema kapitalista zisheteropatriarkal koloniala. Zaintza lan gisa ukatzea eta inbisibilizatzea, sistemaren ezinbesteko premisa da; horregatik diogu egungo zaintza-sistema iraultzearen proposamenak, potentzial politiko izugarria duela, bestelako sistema bat irudikatzen eta antolatzen garamatzalako.

Mugimendu feministatik, zaintza-sistema iraultzearen proposamen erradikala mahaigaineratu dugu, greba feminista orokor baterako deia eginez, zaintza eskubidea izatea eta lan honen gaineko erabaki gaitasun kolektiboa edukitzea exijituz.

Azken urteetan, mugimendu feministatik mobilizazio gaitasun ikaragarria erakutsi dugu. Antolatzen gabiltzan greba honek izango duen potentzialtasunaz eta eztanda gaitasunaz baliatuko

gara errotiko aldaketak eragin eta exijitzeko; urgentziazkoak diren aldaketak abiarazteko; arrakalak sortu eta eraldaketetan sakontzen joateko aurrebaldintzak sortzeko; gure utopia propioak hemen eta orain gaurdanik eraikitzeko. Ezkutatu egin nahi dute, baina askotan diogun bezala, gerra egon badago. Gerra hau ikusaraztera gatoz, iraultza feminista da gurea!

Jada hasi gara grebaren antolaketan auzo eta herrietan. Ordea, jakin badakigu, gazteok beharrezko dugula antolaketa propio bat ere, gure behar eta proposamenek tokia izan dezaten, mundu ikuskera zabaldu dezagun eta iritzi sortzaile izan gaitzen.

Indartsu gaude eta espazio propioak behar ditugu. Horregatik, grebaren aurretik Euskal Herriko gazte feministontzat espazio bat sortuko dugu, Baterajotze berri batera goaz. Dugun potentzialtasuna artikulatu, norabidetu eta nola kristalizatu erabakitzeke Usurbilen elkartuko gara urriaren 13, 14 eta 15ean.

Milaka gara auzo eta herrietan lanean gauden neska* gazteak, zaintza politizatzen ari garenak, gure gorputzak zeharkatzen dituzten zapalkuntza egoerei izena jartzen diegunak, hirigintza gure bizitzaren neurri diseinatuta ez dagoela salatzen gabiltzanak, hezkuntza-sistema patriarkal dela salatzen dugunak, bestelako harremantze ereduak imajinatzen eta praktikan jartzen ari garenak, autodefentsa feministan gorputza jartzen dugunak... Finean, beste mundu bat posible dela sinetsi eta hau eraikitzeke borrokan gaudenak. Baliatu dezagun potentzialtasun hau utopiak gaurdanik eraikitzen hasteko, eta horretara bidean, Greba Orokor Feminista inoizko indartsuena izan dadin.

Sistema kapitalista zisheteropatriarkala iraultzeko proposamenak irudikatu eta artikulatzen, hausturak kolektiboki antolatzen eta utopiak lehertzen gatoz. Euskal Herriko neska* gazteok indarberriturik gaude, iraultza feminista da gurea. Utopiak lehertzeraino, Neska* Gazteok Baterajotzera! Gora borroka feminista!



Gloritxu Igarategi, lore-eskaintzan. 1936ko Gerran erbestea pairatu zuen haurra izan zen. AIURRI

Oroituzen ekitaldia Bastero Kulturgunean

Miranda pasealekuan dagoen "Goiztirian" eskulturan lore-eskaintza egin ondoren, Oroituz elkarteak, ekitaldi nagusia egin zuen Andoaingo Bastero Kulturgunean. Eguraldiaren menpe ibili ziren, eta azkenerako toki estalian egin zuten ekitaldia

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo kulturpile ugari hartu zuen parte ekitaldiaren lehenengo zatian: Ekaitz Tolo, Juan Godoy eta Jon Urtasun Maizorri elkarte txalapartariak, Josu Lekuona akordeoi-joleak, Unai Barrutia Urkiko dantzariak, eta, Beñat Beloki Punttuka bertso elkarte bertsolariak. Aldi berean, herriko 25 fusilatu eta desagerrarazi gogoan hartu zituzten, beren familiarrek eta adiskideek eskaini zieten lore eskaintzaren eskutik. Azkenik, Kepa Ordoki eta Oroituz elkarteetako kideek hitza hartu zuten.

Mezu kritikoak

Memoria-politika ofizialak jomugan izan zituzten Oroituz eta Kepa Ordoki elkarteetako ordezkariak. Oroituz-eko Lurdes Arteagak, frankismoko 40 urtetan, eta, ondorengo 45 urtetan, ahaztuak izan diren Andoaingo biktimak izan zituen gogoan bereziki, bere hitzartzean. "Eu-

rek izan dira Andoaingo memoria bizirik mantendu duten herritarrak, baina ordainean, egiazki eta justiziarik ezagutu gabe joan zaizkigu gure artetik asko eta asko. Hori baino injustizia handiagorik ba ote da?"

Salatu zuenez, klase politikoa ahalegindu da biktimen ondoan argazkiak ateratzen. "Baina arabakiak hartzeko ahalmena izan arren, ez du ezarri nazioartean onetsitako 'egia, justizia, aitormena'ren printzipioa". Madrilen onartu berri den eta Gasteizen onartzera doazen Memoria-legeak ere gogoan hartu zituen Arteagak, "ahazturaren politika nagusi izan denez orain arte, aurrera-pausutzat jo behar dira legeak, jakina; nolahi ere, justizia bazterten segitzen dute. Eta, batik bat, oso berandu datoz Euskal Herriko eta estatuko milaka eta milaka biktimentzat".

Peli Lekuonak, Kepa Ordoki Bidasaldeko elkartearen izenean, azken egunetan piztu den polemika izan zuen hizpide. "Aste

honetan zientziaren begietatik begiratzen den memoriak kolpe latza jaso du; leherrarazi egin dira urtetan ezarritako gutxieneko kontsentsu emankorrak. Aranzadi izan da irizpide eta metodologia zientifikoarekin gertuko memoria soila plazaratu duena, 2018an ezarritako irizpideekin: alegia, ez baztertu, ez legitimatu, ez garrantzirik kendu. Eta, orain, kezagarria da zer nolako egoeran geratu diren Aranzadiko historialariak".

Musika emanaldi gogoangarria

Andoaingo Banda Errepublikanoak abesti antifaxistez osatutako musika-emanaldia eskaini zuen, Joxe Mari Oiarzabalek zuzenduta. "Ekaitza", "Hijos del pueblo", "Maravillas", "Justizia" eta "Eusko Gudariak" eskaini zituzten. Azpimarratzekoa da Fermin Valentzia abeslari nafarrak sortutako "Maravillas" abestiaren bertsioa, Sebastopol taldeko dantzariekin batera.

Urteroko hitzordua, memoriarekin



Unai Barrutia Urki dantza taldeko kideak eskaini zuen agurra. AIURRI

Omenezko agurra Euriaren eraginez, ekitaldia Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan egin zen. Ohi bezala, biktimen omenezko agurrarekin eta lore-eskaintzarekin hasi zen ekitaldia. 25 lagun dira desagerrarazitakoak eta eraildakoak.



Abeslariak, musikariak eta dantzariak elkarrekin. AIURRI

Musika eta dantza emanaldia Gora Kaletxiki banda, Abesbatza Errepublikanoa eta Donostiako Sebastopol dantza taldea aritu ziren, larunbateko ekitaldian. Txaranak eta abesbatzak bost abesti eskaini zituzten, eta Fermin Valentziaren "Maravillas" kantuan dantzariak batu ziren.



Ekitaldiaren ostean hamaiketako egin zuten. AIURRI

Lagunartean Andoaingok kanpo bizi dira biktimen senitarteko asko, eta topagune polita izan ohi da ekitaldia. Omenaldiaren osteko hamaiketaxoan, kontu-kontari aritzeko aukera proposa izan ohi da. Basteron argazki ugari ikusgai izan ziren, hizpidea eman zutenak.



Jesus Langara, Labordeko langileek ospatzen zuten San Martingo jai egunean, Goikoplazan egiten zituzten jokoetako batean, 1954/11/14an. ANDOAINGO UDAL ARTXIBOA. LABORDE FUNTSA

Jesus Langara, aurreko mendeko herrigintzan eredugarri

Jesus Langara Galarraga (Donostia, 1906-Andoain, 1990) Andoaingo XX. mendeko herrigintzan ekintzaile nekaezina izateagatik nabarmendu zen. Euskalduna klubak zein Santa Krutz jaiek asko zor diote Langarari, hil ala biziko egoeran zirenean

Xabier Lasa ANDOAIN

Makina bat ofizioko gizona izan zen: Laborden mekanikoa, eta, bertan, eta, La Salle ikastetxean, mekanikako irakaslea, ileapaintzailea eta tabernaria. Eta denbora-libreetan, besteak beste, argazkilaria, Euskalduna futbol taldeko Zuzendaritza Batzorde

kidea eta entrenatzailea, Santa Krutz jaietako Jai Batzorde kidea, Ontza elkarteko diruzaina, eta, Santa Krutz Jubilatuen elkarte-ko lehen bultzatzailea izan zen.

Orain 40 urte, 1983ko Santa Krutz jaien programan, Bixente Huizik hiru orrialdeko artikulua eskaini zion Jesus Langarari,

herrigintzan hamarkadatan egindako lana gorestekoa: "Norbaitek Gurutze Santuko jaien omenez argitaratzen dugun jai programa honetan leku txiki bat betetzeko nahikoa arrazoi badu, esan daiteke, pertsona hori, inolako zalantzarik gabe, Jesus Langara dela".

Ez ziren kunplimenduzko hitz hutsak Huizik idatzitakoak. Bazekien zertaz ari zen. Ez alferrik, Huizi Andoaingo kirol eta gizarte eragile izateaz gain, La Voz de España egunkariko kronikalaria izana zen hamarkadetan, eta ondo baino hobeto ezagutzen zituen Andoaingo herriaren eta andoaindarraren gorabeherak.

Jesus Langara "saltsero" gisa definitzen du Kontxi Langarak, bere alabak. "Lagun-giro zalea eta festa zalea zen, baina oso ondo zekien herriko jendea mugitzeko, lehenbizi, atzetik eta isilean, lan ugari egin behar izaten dela. Berari, gizarte-ekin-tzarako dedikazioak, ez zion buruhausterik sortzen; naturaltasunez irteten zitzaion egiten zuen guztia, eta sekula ez zuen asmoa bere burua nabarmentzea".

Ekintzaletasun emankor hori gara zezan, jakina, ezinbestekoa izan zuen ondoan Manoli Aizpurua Isasa emaztea edukitzea, emakume maitekor eta eskuzabala, gogotik saiatu zena Bodega tabernako sukaldean, familiaren gorabeheratan zein hiru seme-alaben heziketan.

Donostia jaio, Andoainen bizi eta hil

Jesus Langara Galarraga Donostian jaio zen, 1906ko maiatzaren 7an. Jose Manuel eta Maria izan zituen gurasoak, eta Enkarna (1908) eta Isidro (1912) anai-arrebak. Aitak non lortu lanpostua, han bizi behar izan zuten haurtzaroan: Pasaian (1907-1913) eta Elgoibarren (1914-1920). Azkenik, aitak Andoaingo Algodoneran lanpostua eskuratu, eta familiak bertan jarri zuen bizitoki finkoa, Zumea kalean. Jesus ere aitarekin hasi zen lanean gaztetan, baina agudo, ileapaintzaile gisa Donostian Francisco Benegas etxean jardun zen.

Gaztetan, kirolari amorratua izan zen, baina ez zuen Isidro anaiaren bidetik jo, futboletik alegia, ezta ere emaitzetan horren urrun iritsi, noski. Gogoan izan, anaia nazioartean goi-goiko jokalaritzat jotzen dela, 30 eta 40ko hamarkadetan, Espainia, Mexiko eta Argentinako lehen ligatan goleatzailea izan baitzen (marka mordoska ipini zuen bere garaian golen atalean, eta horietako bat, hiru hat-trick hiru partidatan segidan sartzea, artean ezin izan dute berdindu ez Messik ezta Ronaldok ere).

Bada, Jesus Langarak futbola ez baizik, atletismoa ere izan zuen gogoko, eta pistetan hiru probetan, jauzi hirukoitzean, pertiga-jauzian eta luzeran, Gipuzkoa mailako txapelketetan aritu zen puska batean.

30eko hamarkadan, Zumea kalean, bi negozio ireki zituen: Bodega taberna, eta bizartegia Estanislao Amutxastegirekin batera. 1935eko azaroan, Manoli Aizpurua eta biak ezkondu egin ziren; lau seme-alaba izan zituzten: Andres (1938), Maria Jesus (1941), Kontxi (1946) eta Joxe Manuel (1955). Familia tabernaren gainean bizi izan zen, harik eta 1944an Kale Berrira (pareko etxean) pasa ziren arte. Ordurako, taberna utzita zeukan familiak.

1936an kolpe militarra gertatu zenean, Laborden ari zen lanean, eta bertan militarizatuta segi zuen. Urtetan aurrera, bertako enkargatua izatera iritsi zen.

Enkargatua ez ezik, mekanikoen maisua ere izan zen zenbait urtetan; hain zuzen, Labordek 1941ean ireki zuen mekaniko ikastunen eskolan zein La Salle ikastetxean gau-eskolan.

Euskalduna klubean, ezinbesteko eragile

Euskaldunako historiaren mende erdian (20, 30, 40, 50, eta 60ko hamarkadetan), ia denetik izan zen Jesus Langara: kirolari (atleta) zuzendaritzako kide eta entrenatzailea, bai behintzat. Batik bat, klubaren lehen erdialdean, ezinbesteko pertsona izan zela esan daiteke.

Euskaldunak bere mende osoko historian bi txandatan desagertu izan da, 1928an eta 1936an. Bada, desagertu osteko bi alditan berpizte eta indarberritze haietan zerikusia handia eduki zuen Langarak.

Hain zuzen, 1928-1935 aldian ezkutatuta egon zen kluba. Ez dago argi zergatik izan zen, kabalak besterik ezin dira egin: klubaren martxaz arduratuko zen inor lanerako ez prestatu izana, Euskaldunaren elastikoa Gipuzkoako zelaietan duintasunez defendatuko zuen jokalaritaldetik ez topatu izana, barne liskarrak, arazo ekonomikoak... Bada, urtetan aurrera, 1935ean, zenbait herrikide Euskalduna suspertzeko asmoz bildu, eta futbolerako gogoia eta kemena zeukan belaunaldi gaztea bati esker, Gipuzkoako hirugarren mailako txapelketan parte har-



1953ko San Estebango jaietan, Goiburu auzoan, bost familia (Izagirre Langara, Langara Aizpurua, Txopeitia Ulanga, Amiano Oiartzabal eta Langara Txopeitia familiak, Jesus Isasa eta Joxe Mari Oiartzabal musikariek. (1) Patxi Amiano Oiartzabal; (2) Jesus Isasa; (3) Enkarna Oiartzabal Zigarán; (4) Jose Mari Oiartzabal Zigarán; (5) Pantxika Ulanga Aiarbe; (6) Manoli Aizpurua Isasa; (7) Andres Langara Aizpurua; (8) Sebastiana Txopeitia Beuba; (9) Jesus Langara Galarraga; (10) Pilar Txopeitia Ulanga; (11) Segundo Amiano Lopez; (12) Arantxa Langara Txopeitia; (13) Marisa Jesus Langara Aizpurua; (14) Niko Langara Txopeitia; (15) Mertxe Izagirre Langara; (16) Pablo Izagirre Iraeta; (17) Teodoro Txopeitia Beuba; (18) Arantxa Txopeitia Ulanga; (19) Joxe Mari Txopeitia Ulanga; (20) Kontxi Langara Aizpurua; (21) Modesto Langara Inziarte; (22) Martin Izagirre Langara; (23) Pablo Izagirre Langara; (24) Teodoro Langara Txopeitia. KONTXI LANGARA



1963an Labordeen, irakasleak langile gazteekin zorrozkailluaren ondoan. (1) Jesus Langara; (2) Jose Mari Zubillaga; (3) Luis Mari Beloki; (4) Iñaki Setien; (5) Jose Manuel Lizarribar; (6) Asensio Urkaregi; (7) Pedro Ugartemendia; (8) Patxi Sueskun; (9) Jose Urkaregi; (10) Patxi Arizeta; (11) Josetxo Beloki; (12) Jose Luis Ponce; (13) Jose Inazio Pagola; (14) Joxe Mari Ozaeta; (15) Identifikatu gabe; (16) Jose Inazio Albizu; (17) Jose Inazio Aizpurua. Arizeta Labordeko irakaslea zen eta Sueskun La Salleko irakaslea (gerora, Setienek ordezkatuko zuen). Sueskun eta Langara La Salleko eta Labordeko eskoletako arduradunak ziren. K.L.

tzeko taldea osatu ahal izan zuten. Baita txapelketa irabazi ere!

Euskaldunaren berpizte giro horretan, adierazgarria da Langarak berak nola eraiki zuen buzoia, eta gero nola ipini zuen Buruntzako tontorrean EA (Euskalduna Andoaindarra) hizkiarekin, mendizaleek mezuak el-

karri helarazteko gonbidatuz. Egun mendi ibilaldiak argitaratzen dituzten kronikagile ugari diotenez, Euskal Herrian zaharrena izango da buzoi hori.

Txapela jantzi eta gutxira, Errepublikaren aurkakoek estatu-kolpe odoltsua piztu zuten, eta ondorengo errepresio latzak

eta gatazka belikoak, Andoaingo bizikidetzaren iraultzeaz eta txikitzeaz gain, Euskaldunak hasi berri zuen ibilbide indartsua zapuztu zuen. Aurreko asteko Aiurri aldizkariak aldi historiko horren kronika ekarri zuen, zapalketa jasan zuten jokalarien biografiak barne.

1936-1944 epean, etenaldia gainditu ostean, 1944-1945eko denboraldian, Langarak eta herriko beste zenbait kirolzaleek Euskalduna martxan jarri zuten, bigarren aldiz; Ignazio Etxebeste hartu zuen lehendakaritza orduan. Denetik egin beharra zegoen Euskalduna errautsetatik ateratzeko, eta Langara, zuzendaritza kide ez ezik, entrenatzailea ere izan zen lehenbiziko bi denboraldietan; denetik egitea egokitu zitzaion, baita jokalarien arropak etxera garbitzera eramatea ere!

Argazkilari zaletu bakanetakoa XX. mendeko lehen erdialdean, Andoainen Sekundino Etxeberria izan zen argazkilari profesional bakana. Afizionatu bakarra edo bakanetakoa, berriz, Jesus Langara. Garai historiko hartako gertakizun eta ospakizun publikoen gaineko zein familia eta lagun-giroko erretratuak, sinatu gabeak eta guregana iritsi direnak, Etxeberria izango dute egile gehienak; baina tartean, izango dira Langarak egindakoak ere.

Langara herri ekimen askotan eragile nahiz parte-hartzailea izan zen, eta ahal zuen guztietan argazkiak ateratzeko ohitura eduki ohi zuen. Horri gehitu behar diogu ondare historikoaren zaintzaile amorratua zela eta jakitun zela ateratzen zituen argazkiek etorkizunean eduki zezaketen balio erantsiaz. Horrenbestez, ulertzekoa da zenbat zaintzen zituen argazki guzti horiek, kutxa batean gordeta. Eta altxor grafiko horrekin batera biltzen zituen Euskalduna klubaren zein Santa Krutz Jai Batzordearen urte-urteko agiri guztiak.

1953ko uholde malapartatu hark, ordea, aurretik eraman zizkion argazki eta agiriak guztiak; pentsatzeko da berebiziko atsekaberririk handiena hartu izana!

Egia da, aurrez (1949), familia, Oria ibairen ertzean zegoen Zumea kaleko etxebizitza utzi eta Kale Berrira etxer aldatu zela, era horretan eurite bortitzen erasoez libratuko zirelakoan. Familiak susmatu ez zuena zera izan zen, ordea: handik lau urtera, 1953eko urriaren 14-15ean, Gipuzkoako XX. mendean jasan duen uholderik izugarrienak bizituko zituela, eta, kaltetuak, Zumea kaleaz eta Kale Nagusiaz gain, Kale Berrira ere izango zela. Esaterako, Santa Krutz ermitako kristoaren gerriaren parera iritsi ziren ur mailak

batean zein bestean). Horrenbestez, hondamena Langara Aizpurua familiaren etxebizitzaren etxeperraino iritsi zen. Santa Krutz jaien bultzatzailea

Gerra osteko urte ilun eta etsigarrietan, nahiz 50 eta 60ko hamarkadetan, Santa Krutz jaien antolaketan buru belarri aritu zen Langara, beren arima izanik kasik. 1983ko Santa Krutz jai-programan Huizi kazetariak Langara hizpide duela, ez du ahazten jai horien alde egindako ahaleginak: "Nahiz eta Donostian jaioa izan, esan daiteke gorputz eta ariman andoaindar peto-petoa dela, eta urterik zailenetan, herriko ohiturak eta tradizioak urtez urte mantentzen jakin zuteneko bat izan zela Santa Krutz jaien eskutik. Denboraren poderioz, beste belaunaldi gazte batek hartu izan zuen antolakuntzaren lekukoa, gaur egun hartuta daukan horrek, hain zuzen".

San Esteban jaietan, eragile

Langarak biziki maite zituen Goiburu auzoa eta San Esteban jaiak, eta 1940-1960 aldian, bi egun izaten zituen bereziki markatuak agendan: abuztuaren 3a (San Esteban eguna) eta hurrengo igandea. Abuztuaren 3an, futbolari eta pilotari izandakoekin bazkaria antolatzen zuten; Isidro anaiak berarekin punta-puntan ibilitako jokalariei ohiak ekartzen zituen Goiburura. Goizean goiz, Langara eta Deportivo tabernako Margarita Aiertza, biak generoz zamatutako astoarekin aldapan gora abiatzen ziren, baserri-azura. Langara bazkaria prestatzera, eta Aiertza bertan dagoen kiosko-taberna gobernatzera. Bazkalostean, Langara berak haurrentzat jolasak antolatzen zituen, eta parte-hartzaile guztiei bazkariko gonbidatuek emandako opariak banatzen zizkien. Hurrengo igandean, berriz, andoaindarren artean izugarri errotuta zegoen Goiburuko belazeetan familia-bazkarien festa izaten zen, eta Langarak ez zuen hutsik egiten; bospasei familien egun-pasaren antolaketan buru-belarri aritzen zen.

Langarak Andoaingo beste zenbait gizarte elkartetan parte-hartze zuzena eduki zuen, hamarkadetan. Esate baterako, Ontza elkarteko diruzaina izan zen urtetan eta urtetan, eta Olagain auzoko Santa Krutz Jubilatuen elkarteko lehen lehendakaria ere bai.



Lehian murgildu diren sei bikoteak. Ezkerrean hasita, lehen biak urnietarrak: Ansa eta Goikoetxea. **AJURRI**

Adimen artifiziala eta puntuaketa- eredu berria

ERREMONTA Joan den astelehenean hasi eta ekainaren 12ra bitarte iraungo du XIII. Sagardoaren Txapelketak. Sei bikote ariko dira lehian, besteak beste, Imanol Ansa eta Ander Goikoetxea urnietarrak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hemen da “Erremontari” saioaren hirugarren edizioa, bi berrikuntza nagusirekin, gainera. Batetik, adimen artifizialarekin sortutako pertsonaia, *Erremontari*, izango da saioaren ikur nahiz gidari. Bestetik, aldaketak izango dira puntuaketa sisteman.

Dena dela, ohiturak aginduta, sei bikote izango dira lehian, astelehen honetan hasi berri den eta ekainaren 12ra bitarte iraungo duen XIII. Sagardoaren Txapelketan. Biko bakoitza sagardotegi baten izenean ariko da, tartean, Imanol Ansa nahiz Ander Goikoetxea urnietarrak.

Zalduarekin batera ariko da lehian lehena, Aburuza sagardotegiarrentzat. Bigarrenak, aldiz, Oialume Zar sagardotegia ordeztuko du, Barrenetxea IV-rekin batera. Bestalde, honako bikote hauek izango dituzte parez pare: Urriza-Martirena (Alorrenea), Aldabe-Azpiroz (Petritegi), Seguro-

Juanenea (Bereziartua) eta Ezkurra II-Zubiri (Gurutzeta).

Berrikuntza nagusiak

Adimen artifizialeko lau programa erabili ditu Oriamendi enpresak *Erremontari* pertsonaia birtuala sortzeko. Txapelketaren unean uneko irakurketak hezurraragizko aurkezleei utzita, abatarrek bestelako eginbeharrak izango ditu xede. Hala nola, asteroko gertuko jarraipena emango die norgehiagokei, gidari lanak egiteko asmoz, datuak, laburpenak eta emaitzak emanez.

Erremontari ez da berrikuntza bakarra, ordea. Izan ere, set formatuan jokatuko dira neurketak: 15 puntuko bi set izango dira, lehenik, eta, berdinketa izanez gero, 5 puntuko hirugarren set baten ostean erabakiko da norgehiagokako bikote irabazlea. Honatx, puntuaketa-sistema:

- Partida bi setetan irabazita (2-0): 4 puntu.
- Partida hirugarren setean irabazita (2-1): 3 puntu.
- Partida hirugarren setean irabazita (1-2): 1 puntu.
- Partida bi setetan galduta (0-2): 0 puntu.
- Partida bi setetan galtzeaz gain, bi partiden artean 16 tanto egitea lortzen ez bada (0-2): -1 puntu.

Proposamen interesgarria iruditzen zaie bi erremontista urnietarrei norgehiagokak neurtzeko irizpide-sistema berria, biek ala biek uste baitutelako “emozioa” ipiniko diola lehiari. Horrela, norgehiagoka bide onetik hasi ez duen bikoteak, aukera izango du gainerako set-etan maila emateko, nahiz eta, berdinketa lortuz gero, jokatu beharreko azken set-a (5 puntura) “laburregia” dela iruditu.

Gainerako erremontistei buruz galdetuta, Ansak dio Goikoetxea V. bera eta Barrenetxea IV. lehiakide indartsuak izango direla, “ondo ezagutzen direlako eta maila oso ona daukatela”. Halere, pozik agertu da Zalduarekin batera osatuko duelako bikotea: “Gustukoenen artean agertuko ez garen arren, laguntasun handia daukat Ibonekin. Ez dugu, sekula, elkarrekin jokatzeko aukera eduki. Aspalditik nahi genuen, eta oso pozik nago”. Laugarren txapelketa du Goikoetxeak segidan Endika Barrenetxea hernaniarrarekin batera: “Elkar ezagutzen dugu, jada, kantxa barruan, eta baita bertatik kanpo ere. Bikote indartsua osatzen dugula iruditzen zait, Urriza-Martiarenean ere indartsu dator. Hala eta guzti ere, oso maila antzekoan ikusten ditut bikote guztiak. Hortaz, edonork eman dezake sorpresa”.

Txapelketaren ibilbidea

Zazpi partidez osatutako ligaxkak emango dio hasiera txapelketari, guztiak guztien aurka ariko diren lehian: joan den astelehenean eta 24an zein maiatzaren 1ean, 8an, 22an eta 29an. Hori horrela, lehen lau postuak eskuratutako bikoteek finalerdietara egingo dute jauzi, ekainaren 5ean jardunaldi bakarrean egingo den neurketan; puntuazio gehien lortu duen bikoteak laugarrenaren aurka jokatu du. Aldiz, bigarren postua eskuratutako bikotea hirugarrenaren aurka ariko da.

Azkenik, ekainaren 12an izango da ia hiru hilabete hartuko dituen txapelketako final handia. Gertuko jarraipena egingo du ETB1 kateak, eta astelehenero-astelehenero, txapelketa ikusteko aukera izango da, 22:30etik aurrera. Bien bitartean, Galarretan (Hernani) jokatuko dira neurketa guztiak, arratsaldeko 18:30ean.



Sagardoaren Txapelketaren aurkezpen ekitaldia, Hernanin. ORIAMENDI

Abiatu da Sagardoaren txapelketa

ERREMONTEA Barrenetxea IV maila onean ari da, eta Goikoetxea urnietarra ere txukun aritu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Sagardoaren txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen, aurreko astelehenean. Oialume Zar (Barrenetxea IV-Goikoetxea V) gailendu zitzaion Alorreñeari (Urriza-Martirena). Eta, bigarren partidari, Petritegi (Aldabe-Azpiroz) Aburuza baino hobea izan zen (Ansa II-Zaldua).

Urriza-Martirena 0

Goikoetxea V-Barrenetxea IV 2
7-15 / 12-15

Barrenetxea ikusgarri aritu zen patida osoan. Sakean oso ondo, jokoan, bikain. Eta jokatzeko maisutasun horrek konfiantza handia eman zion Goikoetxea urnietarrari, oso seguru egon baitzen. Partida polita eta azkarrak izan zen. Urrizak eutsi egin nahi izan zion, baina Barrenetxea gaitz zaila da. Hernaniarrak 16 tanto egin zituen guztira, horietatik hamabi piloteoan eta lau

saketik. Goikoetxeak inoiz baino sendoago bukatu zuen, 11 tantoekin eta akats bakarrarekin.

Ansa II-Zaldua 1 Aldabe-Azpiroz 2

9-15 / 15-12 / 1-5

Azpiroz izan zen partidako protagonista nagusia. Oso ondo aritu zen partidari, aitzitik Ansa irregular aritu zen. Lehen setean aurrelari urnietarra desagertuta egon zen. Bigarren setean, hama binako berdinketaren ondoren, Ansak bere momenturik onenak izan zituen. Azken setean Aldabe bikain aritu zen, partidaren gidaritza hartuz.

Bigarren jardunaldia

Apirilak 24, astelehena
18:00. Galarreta Jai Alai.
Goikoetxea V-Barrenetxea IV
Ezkurra II-Azpiroz /
Ansa II-Zaldua
Seguroa-Juanenea.

FUTBOLA Mariño, sailkapenean, atzetik datorren aurkaria

Lehen erregional mailako igoeira fasean, bigarren postuan da Urnieta taldea. Hirugarrenean da Mariño, eta biren artean bi puntuko aldea besterik ez dago. Bada, asteburu honetan elkarren aurka ariko dira. Pablo de Torresen mutilak oso denboraldi ona burutzen ari dira, eta igoeira fasean bide beretik jarraitu nahi dute.

KROSA Santa Krutz jaietako proban izena emateko epea, zabalik

Maiatzaren 1a kros eguna izan ohi da Andoainean. Eta, aurten, Santa Krutz jaietako XLIII. edizioa izango da. Hamar kilometroko lasterketa izango da helduentzat. Eta, haurrentzat, lasterketa txikia goizeko 11:30ean hasita. Herri lasterketa izango da, baina antolakuntzak denbora jakin batean burutzeko erbiak edo laguntzaileak ipiniko ditu. Xedea, antolatzaileren esanetan, "erritmo desberdinetan, atleta bakoitzari bere helburuak lortzen laguntzeko". Erbiak proba 35, 40, 45, 50 edo 55 minututan egiteko laguntzen ariko dira. Nesketan eta mutiletan, lehen hiru sailkatuentzat sari bana izango da.

DUTXA ZERBITZUAK, ARROPA BILKETA

Alluralde kiroldegian ipiniko dituzte, irteera eta helmuga gutetik gertu. Arropa biltzeko eta kontsignatzeko zerbitzu bat egongo da ere, irteeratik eta helmugatik gertu.



LEIZARAN

Liderra dator Allurraldera

ESKUBALOIA Igande honetan, eguerdiko 12:15tan hasita, Ereintza taldearen aurka ariko da Leizaran Lanbroa taldea. Ligako azken jardunaldia izango da, hogeitabigarrena. Maila handia dago Euskadiko senior ligan, eta 9. postuan dira andoainarrak. Ereintza, aldiz, lehen postuan da eta lau puntuko aldea ateratzen dio Bera Berari. Ligako txapelduna da, beraz, Ereintza.



ESTUDIOGOVER

Liderraren etxean ariko dira

FUTBOLA Real Union, gorengo mailako ligan, lehen postuan ari da. Alde handiz gainera. Eta Euskalduna, berriz, hirugarren. Asteburu honetan Irun aldean ariko da. Ez da partida erraza izango, baina ez da ahaztu behar aurreko jardunaldian bigarren postuan doan Deustu garaitu zutela. 26. jardunaldia denez, atzera kontaketa hasi da.

SAGARDOAREN TXAPELKETA™ Orona

Apirilak 24. Astelehena 18:00etik aurrera. Galarreta jai alai (Hernanin). Sarrera 5€

OIALUME ZAR
GAIKOEETHEA V
BARRENETHEA IV

ABURUZA
ANSA II
ZALDUA I

GETXETA X TIVKJA
EZKURRA II
ZUBIRI

BEREZIARTUA
SEGUROLA
JUANENEA

ERREMONTEARI



AIMAR ALKAIN

Bi eguneko lasterketa, Bizkaian

TXIRRINDULARITZA Andoaingoak Lea-Artibain aritu dira. Lehen etapa Lekeition izan zen, 4,5 km-ko erlojuaren aurka. Aranguren 2. postuan sailkatu zen, Izaro Etxarri 4. eta Itziar Alkain 26. Bigarren etapa Markinan jokatu zen, 42 km-koa. Aranguren 3. sailkatu zen, Etxarri 6. eta Alkain 15.



IRAZU

Irazuren domina Italian

ARTE MARTZIALAK Italian jokatu da Wushu Spring Dragon lehiaketa, eta kirol jarduera horretan denbora tarte txikia daraman Oier Irazuk hirugarren postua lortu zuen. Tolosako Indarra gimnasioan trebatzen ari da, eta datorren urtean ere Europa mailan lehiatzea du xede.

Iturzaeta txapelketa herrikoia

PALA Sorabillako pilotalekuan jokatzen da, teniseko pilotekin. Maiatzaren 1a bitarte izena emateko aukera dago, eta antolatzaileek adierazi dutenez, aurtengoan bikotekide bat Andoaindik kanpoko izatea onartuko da. Nesketan nahiz mutiletan, giro ederrean igarotzen den txapelketa da.



AIURRI



AIURRI

Andoain-Andoain mendi zeharkaldia, igandean

MENDIZALETASUNA

Euskaldunak antolatuta, izena emateko epea ostiral honetan amaituko da

Erredakzioa ANDOAIN

Euskalduna Mendigoizale elkar-teak antolatuta, mendizaleek Andoaingo mugetan barrena ibilaldia egiteko aukera izango dute. Egun berean, hiru ibilbide eskainiko dituzte datorren apirilaren 23an: luzea (43,5 km), motza (21 km) eta familia girokoa (10 km). Apirilaren 21ean jarri dute azken eguna izena emateko, ibilaldi luze eta motzerako. Zirkuitua.com webgunean sartu behar da horretarako. Hona ibilbideen xehetasunak:

Ibilaldi luzea:

- Luzera: 43,5 km.
- Desnibela: 1.600 metro.
- Prezioa: 13 euro.
- Irteera: 07:00.
- Tokia: Ondarreta ikastetxea.

Ibilaldi motza:

- Luzera: 21 km.
- Desnibela: 900 metro.
- Prezioa: 13 euro.
- Irteera: 08:00.
- Tokia: Ondarreta ikastetxea.

Ibilbide familiarra

- Luzera: 10 km.
- Desnibela: 480 metro.
- Prezioa: Helduek 5 euro.
- Irteera: 09:00.
- Tokia: Ondarreta ikastetxea.
- Oharra: Egun berean, irteeran.



EUSKALDUNA

Alebin mailako Huici memoriala

FUTBOLA Euskalduna taldeak alebin mailako txapelketa antolatu zuen, euripean igaro zena. Eguraldiak ez zuen futbol ospakizuna zapuztu. Tartean izan ziren Euskaldunako lau talde eta Urrietako bat. Txapelketa zarauztarrek irabazi zuten, nesken mailan. Eta, mutiletan, Euskaldunak.



EUSKALDUNA



EUSKALDUNA



andoaiNDARRA
euskaraz



Euskaldunako zuzendaritza taldeko kide den Joxi Gaztañaga, Ubitarte zelaiaren kanpoaldean. AIURRI

"Andoaindar guztiek tokia dute Euskaldunako herri bazkarian"

JOXI GAZTAÑAGA EUSKALDUNA TALDEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

FUTBOLA Klubaren mendeurrena garrantzi handiko hiru hitzordutan murgiltzear da: erakusketa, Ubitarten jarriko duten eskulturaren irekiera-ekitaldia eta herri bazkaria

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
1923ko maiatzaren 28an beteko dira ehun urte. Iristear da egun seinalatua.

Bai. Urtarrilean ekin genion mendeurrena ospatzeari, baina ekitaldi nagusiak oraintxe datoz: erakusketa, eskulturaren irekiera eta herri bazkaria. Erakusketa hilabetez zabalik izango da, eta lehenengo eguna klubarekin zerikusi zuzena izan duten pertsoneri zabalduko diegu. Erakusketan historiari errepasoa emango diogu, eta ez bakarrik futbol ibilbideari. Pilotak, saskibaloiak eta mendi-

zaletasunak atal bana izan baitzuten klubaren iraganean.

Apirilaren 21etik aurrera, herritar guztiei zabalik izango da, Basteroko erakusketa gelan, ohiko ordutegian.

Zer da Bastero Kulturgunean zabalitzear den erakusketak bere baitan jasoko duena?

"MAIATZAREN 13KO HERRI BAZKARIA ANDOAINDAR GUZTIEKIN PARTEKATU NAHI DUGU"

Historiako mugarriak topatuko ditu bisitariak, erakusketa aretoan. Sartu eta berehala, historian izan ditugun lehendakariei tartea eskaini diegu. 29 lagun izan dira, denera, ehun urteko historian.

Hainbat mugarri izan ditugure klubak, historian. Besteak beste, Etxeberrietako futbol zelaia. 75 urtez han izan ginen. Loidi taberna zegoen han, eta hura klubaren egoitza sozial modukoa bilakatu zen. Bada, Loidi tabernak ere txokoa izango du erakusketan. Kirol ikuspegitik, 60ko hamarkadan, Eus-

kalduna sei urtez jarraian hirugarren mailan aritu zen. Jokalari garrantzitsuak izan genituen, garai hartan. Besteak beste, Mendiluze, Esnaola, Velasco anaiak, Artola... Jubenil mailako taldea nazional mailako ligan aritu zen eta horren lekukotza agertuko da erakusketan. Ahaztu gabe Ubitarte, azken urteotako gure zelaia dena. Oro har, oso erakusketa polita prestatzen ari gara. Erakusketak iraun bitartean, beste bi ekitaldi garrantzitsu izango ditugu. **Zeintzu dira beste bi ekitaldi nagusi horiek?**

Maiatzaren 6an ekitaldi nagusia antolatuko dugu Bastero Kulturguneko auditorioan. 12:00tan izango da, eta herritarrez betetzea nahiko genuke. Ekitaldi berezia izango da, hainbat kide nabarmenduko ditugulako. Euskaldunaren pasarte ezberdinak biziberrituko ditugu, antzezpen eta azalpen ezberdinen bidez. Imanol Iribarrenek egindako ereserkia zuzenean eskainiko dugu, Mikel Morenok abestuko duena. Historia biltzen duen ikus-entzunezkoaren trailerra eskainiko dugu ere. Bastero betetzea pozgarria litzateke. Hori baino lehen, 11:30ean, eskulturaren irekiera-ekitaldia egingo dugu Ubitarten. Amondarain eskulturaren egilea bertan izango da.

Eta herri bazkaria herri osoari zabalik dago?

Halaxe da. Baina ez da hori bakarrik izango. Maiatzaren 13an, eguerdiko 12:00tan, Euskaldunaren historia biltzen duen ikusentzunezkoa eskainiko dugu Basteroko ekitaldi aretoan. 12:30ean emakumezkoen beteranoak elkartuko dira Ubitarten, lagunarteko partida jokatzeko. Eta, ondoren, bazkaria herrikoia Aita Larramendi ikastolako pilotalekuan. Andoaindar guztiak daude gonbidatuta, Andoain herriarekin partekatu nahi dugulako mendeurrena. 18 urtetik gorakoei zabalik dago, eta berriro diot, ez da Euskaldunako jokalaria ohien bazkaria izango. Hori baino gehiago izatea nahiko genuke. Herrikide guztiei eskainitakoa izatea nahiko genuke.

Baten batek esan dezake ez duela inoiz Euskaldunan jokatu, baina horrek berdin dio. Herritarrak, andoaindarrak, elkartu nahi ditugu herri-bazkarian. Diskoteka mugikorra izango dela aurreratuz dezakegu, bazkalostean kalez kale ibiliko dena.

"100 urte zurekin" erakusketa

Euskalduna Andoaindarra futbol taldeak "100 urte zurekin, Euskalduna. EEU!" izenburupean erakusketa antolatu du Bastero Kulturgunean. Horrela deskribatu dute, hedabideen aurrean: "Erakusketak ibilbide kronologiko bat urratu nahi du Euskaldunaren historian. Mugarri izan diren une esanguratsuak, hala nola, Etxeberrietako zelai zaharra, Hirugarren Mailarako igoera eta Liga Nazional Jubenilerako igoera, Etxeberrietatik Ubitarterako urratsa, emakumezkoen lehenengo taldearen sorrera eta klub urdinak izan dituen jokalaria ospetsu eta partaide nabarmenak". Futbolaz gainera, pilota, mendizalatasuna eta saskibaloia ere erakusketaren parte izango dira, beren garaian Euskaldunaren egituraren barruan egon baitziren. Apirilaren 20az geroztik zabalik da erakusketa.

Herri bazkaria maiatzean

Maiatzaren 13an mendeurrenoko bazkaria antolatu du Euskalduna futbol taldeak. Herritar guztiei zabaldu diete bertan parte hartzeko gonbitea. Aita Larramendi ikastolako frontoian izango da, eta, dagoeneko, izena eman daiteke Euskaldunaren webgunean. Prezioa 25 eurokoa da, eta 18 urtetik gorakoei zuzenduta dago izen-ematea.

Apirilaren 20a bitarte izena ematen duenak kamixeta jasoko du bazkarian bertan. Gainerakoek, beranduago jasoko dute.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 20

URNIETA Hitzaldia

"Adimen emozionala, zer da sentitzen dudana?" izenburupean, Jone Zaldugegiren eskutik.
18:00, Kiroldegiko aretoa.

ANDOAIN Erakusketa

Euskalduna taldearen mendeurrenako erakusketaren irekiera ekitaldia. Maiatzaren 20ra arte zabalik izango da.
18:30, Bastero, erakusketa aretoa.

ANDOAIN Ikuskizuna

"Erik eta Win" bertso, antzerki, poesia eta musika ikuskizuna.
20:00, Bastero.

ANDOAIN Ipuin-kontaketa

Kulturartekotasuna sustatzeko ipuin kontaketa saioa, 4-7 urtekoentzat.
17:00-18:00, Udal Liburutegia.

ANDOAIN Aurkezpena

EAJ-PNV hautes-zerrendaren aurkezpena, Bastero kanpoaldean.
20:00, Plaza Morean.

OSTIRALA 21

ANDOAIN Aurkezpena

EH Bilduren hautes-zerrendaren aurkezpena.
19:00, Bastero.

ANDOAIN Musika

Macaco taldeak ibilbide oparoa osatu du, eta "Vielame el corazon" disko berriena aurkeztera dator.
20:00, Bastero. 12 euro.



Urki dantza taldea, 2019ko edizioan. AIURRI

ANDOAIN Urki dantza taldearen emanaldia

Euskal Herriko dantza ezberdinen erakustaldia eskainiko du Urkik.
Apirilak 23, igandea. 12:00, Bastero Kulturgunea.

LARUNBATA 22

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Itsasminez" haur antzerkia. Argik ez du bere etxetik itsasoa ikusten, baina ezagutu eta maite egiten du.
17:00, Bastero. 4 euro.

IGANDEA 23

URNIETA Hitzaldia

Clown ikuskizuna, "Cucko in love". Francis Quiros artista Cuckoren paperean murgilduko da, maitasunaren ertzak nabarmentzeko.
19:00, Sarobe.

OSTEGUNA 27

URNIETA Dokumentala

Elbira Zipitriari buruzkoa.
19:00, Sarobe.

OSTIRALA 28

ANDOAIN Santakruzak

Haur pregoia, Zumeatarra elkartearan danborrada, helduen pregoia... Santakruzak bertan dira! Apirilaren 28an hasi eta maiatzaren 3ra bitarte Kale Nagusia eta inguruak jaiari murgilduko dira.
16:00, haur pregoia
19:00, helduen pregoia.

"Elbira" bokumentala Saroben


Datorren ostegunean, apirilak 27, Elbira Zipitria Irastortza hezitzaile eta euskaltzale aitzindariari buruzko dokumentala eskainiko dute Saroben. 19:00tan hasita izango da. Fikziozko dokumentalak Zipitriaren bizitzako gertakizunetan sakonduko du, baita Euskal Herriari egindako ekarpenean ere. Elbira andereñoa gertutik ezagutu zuten pertsonen eta adituen ha-

ren jatorria, konpromiso politikoa, Iparraldera ihesa, itzulera eta jarduna kontatuko digute. Tartean, Mari Karmen Mitxelena andereñoa eta Orixe ikastolako sortzailea, Kontxita Beitia andereñoa eta Zurriola ikastolako sortzailea, Mari Karmen Garmendia andereñoa eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu ohia, eta Iñigo Garaialde eta Koro Zumalabe ikasle ohiak. Haren bizitzaren hainbat pasarte fikzioaren bidez zabaldu dituzte, dokumentalean.



Dokumentalaren kartela. ELBIRA

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO


20.000 especies de abejas
Lar., 22. 19:30, 22:00.
Ig., 23. 19:30.
Astl., 24. 19:30, 22:00.

Super Mario Bros. La Pelicula
Ig, 23. 17:00.

URNIETA

SAROBE

Elbira
Osteg, 27. 19:00.



SINOPSIS



20.000 especies de abejas

Zuzendaria: Estibaliz Urresola Solaguren. **Aktoreak:** Sofia Otero, Patricia Lopez Arnaiz, Ane Gabarain, Itziar Lazkano, Martxelo Rubio, Sara Cózar. **Herrialdea:** EH (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, transexualitatea. **Iraupena:** 129 min.

Berlinen saritutako filma

Coco ez da besteen artean ondo egokitzen, eta ez du ulertzen zergatik. Bere inguruko guztiek Aitor deitzen diote, baina ez du bere burua ezagutzen izen horretan, ezta besteen begiradan ere. Bere ama, krisi profesional eta sentimentalean

murgilduta, hiru seme-alabak oporraldira amaren herrira daramatza. Han, izeba oso lotuta dago erleak haztearekin eta ezitia ekoiztearekin. Egonaldi hartan bizitza aldatuko zaie. Beldurrei aurre egin beharko diete.



Ehun urte bete ditu Joxe Manuel Erkizia andoaindarrak

Ostegun honetan iritsi da urtebetetze seinalatura. Sasoiko, gainera, kalean gora eta behera baitabil egunero

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen eta, bereziki, Kaletxikin aurkezpenik behar ez duen herrikidea da Joxe Manuel Erkizia Uria. Apirilaren 20an ehungarren urtebetetzera iritsi

da, eta etxekeekin egitekoa da ospakizun berezia. Auzoan Ontza elkartera oso lotuta dago, eta, oraindik orain, ia egunero, elkartera hurbiltzen da. Kartajokoan aritzea gogoko du, eta

pilotazale amorratua da. Gaztetan pilotari aparta izan zen. Zaletasun horri eutsi dio, Konzejupeko eta Goikoplazako txapelketa eta erakustaldietan ikusleen artean ez baitu hutsik egiten. Erremontea ere oso gogoko du, eta astero-astero Galarrretara hurbiltzen da. Urtarrilean Ontza elkartekoek aipamen berezia egin zioten, urteko batzarraren ostean. Eta EAJ-PNVk omenalditxo egin zion, Aberri Egunean.



Joxe Manuel Erkizia, berriki, Ontza elkartean. Argazkian, bere alboan, Beñat biloba, eta Miren eta Joxeba seme-alabak. AIURRI

Gora Kaletxiki eta Tolosako Banda gaztea, elkarrekin

Andoaingo taldearen hogeigarren urteurrena kalejira batekin ospatuko dute, larunbat honetan



Tolosako Udal Banda Gaztea eta Gora Kaletxiki Banda, Tolosan. GORA KALETXIKI

Erredakzioa ANDOAIN

Gora Kaletxiki Andoaingo karraketan musika zabalduz ospatuko du bere 20. Urteurrena, larunbatean. Ospakizunerako, gonbidatu berezia izango du bidaide: Tolosako Udal Musika

Eskolako Gazteen Banda. Apirilaren 22an, larunbatarekin, goizeko 11:30etik 14:00etara bitarte arituko dira kalez kale bi musika taldeak. Tolosako banda gaztea 60 kideetik gora musikariek osatzen dute, Miguel

Angel Moreno irakaslearen zuzendaritzapean. Hortaz, ehun bat kidez osatutako kalejira erraldoia egingo dute. Ibilbideari ekin eta laster, Goikoplazan, emanaldi berezia prestatu dute; zenbait abesti interpretatuko dituzte, Joxe Mari Oiarzabalek zuzenduta. Kalejira amaitu ondoren, berriz, bazkari eder batekin borobilduko dute ospakizun eguna.

Ezinbestekoa, gizarte bizitzan

Aurten 20 urte beteko dira Andoaingo txarangak bere ibilbidea hasi zuenetik. Txaranga aski ezaguna da Andoainen hainbat eta hainbat festa zein ospakizunetan parte hartzen duelako, urte osoan. Parte hartu ez ezik, kultur-eragilearen funtzioa ere hartzen du tarteka. Makina bat ekimen bultzatu ditu hogeitaretan; besteak beste, Leitzarain bailaran nahiz Santa Krutz elizan hainbat kontzertu, Kaletxikiko jaietan kontzertua, ASPANOI eta GENE elkarteen aldeko kontzertu solidarioak, Gipuzkoako txarangen topagunerako "Andoain txarangatzen" ekimena, beste batzuen artean.



"Txiki" aktorea. TXIKI

Larunbat honetan, Xoxokan, umorezko bakarrizketa saioa

"40 urte eta aldapan behera niek" bakarrizketa ikusteko aukera egongo da larunbatean, Xoxokako Eskolan, "Txiki"ren eskutik. 18:00tan izango da, haur, gazte zein helduentzako. Ondoren pintxopotea egingo da. Ion Martinez Donostiako umoregilea da, bakarrizketa eta antzerki munduan ibilbidea osatzen ari dena. Ikuskizun hau Euskal Herrian barrena aurkeztu du.

ZORION-AGURRAK



URNIETA
Zorionak Uxue
Apirilaren 14an Uxuek 6 urte bete zituen. Etxekoekin eta lagunekin egun polita pasa zenuelakoan, besarkada handi bat gure etxeko txikiari!.



ANDOAIN
Zorionak Oier!
Apirilaren 19an Oier Muñozek 11 urte beteko ditu. Zorionak eta jarraitu beti bezain jator! Muxuak, etxeakoak.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

ESKELAK JARTZEKO:
943 300 732
edo
publizitatea@aiurri.eus

Eskelak Aiurriin:
90 euro

ESKELA

Naroa AMIAMA ARRATIBEL

2023ko apirilaren 17an hil zen, 45 urte zituela

Txiki-txikitatik gure bizitzaren parte izan zara eta beti egongo zara gure bihotzean. Zure alaitasuna eta indarra hemen geratzen dira gurekin.

Betirarte,
Maribel, Xabi, Eli, Unai, Gorka, Inge eta Jon

AGIRRE PEREZ SENDIA

ESKELA

Naroa AMIAMA ARRATIBEL

2023ko apirilaren 17an hil zen, 45 urte zituela

Naroa, zure irrifarra eta barne indarra, beti eramango dugu gure bihotzetan. Bidai on lagun. Hurrengo geltokian elkartuko gara.

Ainhua, Esti, Marian, Jaso, Marta, Ainara eta Maider

Andoainen, 2023ko apirilaren 18an

Andoainen *euskara* sustatzeko jardueretarako *dirulaguntzak* 2023

euskara ikasteko 2022-23 ikasturtean

Noiz aurkeztu eskaera?

- **Ekainaren 30a baino lehen**, zure ikastaroa martxoaren 1etik ekainaren 30era bitartean bukatzen baldin bada.
- **Urriaren 1a baino lehen**, zure ikastaroa ekainaren 1etik aurrera hasi eta urriaren 1 aurretik bukatzen baldin bada.

Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroak egiteko edota aisialdi edota kirol elkarteetako begirale eta entrenatzaileentzat jokalarien hizkuntza-aktibazioan eragiteko estrategiak lantzen dituzten ikastaroak egiteko.

Eskaera aurkezteko epea:
irailaren 11tik urriaren 13ra.

Udako Unibertsitate ikastaroak, erakunde ofizialek antolatutakoak.

Eskaera aurkezteko epea:
irailaren 11tik urriaren 13ra.

Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak.

Eskaera aurkezteko epea:
ekainaren 30a baino lehen.

Merkataritza, ostalaritza eta beste jardundegiei zuzendutako dirulaguntzak:

- Kanpo eta barruko errotuluak, idatzizko euskarriak, seinalitika eta abar euskaraz jartzeko.
- Webguneak eta programa informatikoak euskaraz jartzeko.

Eskaera aurkezteko epea:
apirilaren 17tik ekainaren 16ra.



andoainDARRA
euskaraz



ANDOAINGO UDALA

Informazio gehiago:

andoaindarraeuskaraz.eus/dirulaguntzak

Tel: 943 300 831

euskarazerbitzua@andoain.eus